

## Ligiko zubia

Maryse Urruty-k kontatua

Aspaldi-aspaldiko garaietan, orain dela mendeak eta mendeak, Ligiko jaunak zubi bat eraikiarazi zuen herritik pasatzen den errekaaren gainean. Euskal harginek harria ongi lantzen zuten fama zeukaten mundu osoan baina eraikuntza, bukatu baino lehen erori zen. Berriz eraikitzeko agindu zuen jaunak eta berriz erori zen zubia.

Hirugarrenez, horrelakorik ez gertatzeko, Ligiko jaunak Lesarantzuko laminak deitu zituen zubia egiteko. Laminek kontent onartu zuten, lana Maite baitzuten, baina baldintza bat jarri zuten:

- Sekulan eroriko ez den zubi bat eginen dugu eta oilarrak kantatu baino lehen egin ere, baina zure arima nahi dugu gure lanaren truk.

Ligiko jaunak pentsatu zuen.

- Zubia berehala behar dut eta arima ... bukatzen dutenerako zerbait bururatuko zait ...

Tratua onartu zuen eta laminak lanean hasi ziren. Ehunka ziren: batzuek harriak lantzen zituzten; besteek eskuz esku pasatzen zituzten erranez: "To, Gilen! Har ezak, Gilen! Emadak, Gilen! Hemen gaituk hamaika mila Gilen!" Eta beste batzuek harriak behar ziren lekuan jartzen zituzten arkua osatuz, baina ez zuten gizonek bezala egiten, bazterretatik erdialdera; haiek bazter batetik bestera zuzenean egiten zuten.

Ligiko jaunak gazteluko dorretik ikusten zuen lanaren martxa. Beti erritmo berean aritzen ziren, beti erranez: "To, Gilen! Har ezak, Gilen! Emadak, Gilen! Hemen gaituk hamaika mila Gilen!"

Azkenean, harri bat besterik ez zen falta zubia osatzeko.

"To, Gilen! Har ezak, Gilen! ... Hauxe duk azkena, Gilen!"

Orduan, Ligiko jaunak sua eman zion lasto pilari eta sekulako argitasuna egin zen oilategian. Oilar gazte bat, egunak lotan hartu zuelakoan, bat batean iratzarri zen eta, hegoak astinduz, kukurruku oihukatu zuen.

Oilarraren kukurrukua entzutean, laminek gelditzen zitzaien harria erreka bota zuten eta desagertu ziren, oihukatuz: "Oilar madarikatua! Martxoko oilar madarikatua!"

